

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2024ko ekainaren 15tik ekainaren 21erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/06/19

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2024ko ekainaren 4ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita ekintza eta 2022-2024ko esku-hartze sozialeko estatuko hitzarmen kolektiboko 2025eko soldatak berraztertzeak akordioa. **12484 xedapena- 3 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko ekainaren 7koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita eguneroko prentsaren sektoreko estatuko hitzarmen kolektiboa. **12488 xedapena- 44 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2024/06/19

- **EUSKADIKO ADMINISTRAZIOAK. EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako ehungintzaren merkataritzaren sektorearentzako hitzarmen kolektiboa. **1912e xedapena- 20 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/06/21

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** 2022-2025 urteetarako Gipuzkoako Errepidean Zeharreko Bidaiaren Garraioaren hitzarmen kolektiboa. **4571 xedapena- 34 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/06/15

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Itsasoko langileak.** 505/2024 Errege Dekretua, maiatzaren 28koa, itsas eta arrantza-sektoreko langile ontziratuen gaitasun-azterketa medikoak eta osasunaren babesa arautzen dituenak. **12121 xedapena- 28 or.**

2024/06/18

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Presako neurriak.** Honen akats-zuzenketa: 3/2024 Errege Lege Dekretua, ekainaren 4koa, gazteek 2024ko udako bidaietarako lurreko garraio publiko kolektiboa erabil dezaten sustatzeko neurriei buruzkoa. **12289 xedapena- 1 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA. Estatuko Osasun Sistema.** SND/606/2024 Agindua, ekainaren 13koa, Genetika Arloko Zerbitzu Erkideen Zorrorako Aholku Batzordea eratzen duena, eta aldatzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I., II., III., VI. eta VII. eranskinak; errege-dekretu horren bidez ezartzen da Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu erkideen zorroa eta hura eguneratzeko prozedura. **12290 xedapena- 22 or.**

2024/06/19

- **GORTE NAGUSIAK. Kolektibo zaurgarrien babesa.** Ebazpena, 2024ko ekainaren 13koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila maiatzaren 14ko 1/2024 Errege Lege Dekretuaren baliozkotze-akordioa. Haren bidez, bereziki ahulak diren kolektiboetako pertsonak ohiko etxebizitzetatik botatzeak bertan behera uzteko neurriak luzatzen dira. **12374 xedapena- 1 or.**
- **GARRAIOKO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIKO MINISTERIOA. Trenbide-azpiegiturak.** TRM/608/2024 Agindua, apirilaren 15ekoa, otsailaren 15eko TMA/135/2023 Aginduko akatsak zuzentzen dituen. Agindu horren bidez onesten dira azpiegitura-azpisistemaren (IFI) proiektua lantzeko eta hura eraikitzeko instrukzioa eta energia-azpisistemaren (IFE) proiektua lantzeko eta hura eraikitzeko instrukzioa, eta aldatzen dira FOM/1630/2015 Agindua, uztailaren 14koa, Galiboen trenbideetako instrukzioa onartzen duena, eta FOM/2015/2016 Agindua, abenduaren 30ekoa, Interes Orokorreko Trenbide Sareko Trenbide Zirkulazioko Seinaleen Katalogo Ofiziala onesten duena. **12377 xedapena- 5 or.**
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Nekazaritza Politika Bateratua.** 567/2024 Errege Dekretua, ekainaren 18koa, aldatzen duena abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretua, ezartzen duena zer baldintza indartu bete behar dituzten Nekazaritza Politika Bateratuaren esparruan laguntzen onuradun izanik zuzeneko ordainketak, landa-garapeneko urteko zenbait ordainketa eta Urruntasunaren eta Intsularitatearen aldeko Aukera Espezifikoaren Programako (POSEI) ordainketak jasotzen dituztenek, eta ezartzen dituen baldintza sozialak aplikatzeko arauak. **12378 xedapena - 8 or. 12378 xedapena- 8 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA. Osasun publikoa.** 568/2024 Errege Dekretua, ekainaren 18koa, Osasun Publikoko Estatuko Zaintza Sarea eratzen duena. **12379 xedapena- 23 or.**

2024/06/20

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Antolamendua.** ISM/614/2024 Agindua, ekainaren 19koa, zeinaren bidez eratzen baita Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioko Iruzuraren Kontrako Batzordea, eta ezartzen baitira haren osaera eta funtzioak. **12504 xedapena- 4 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2024/06/19

- **SEGURTASUN SAILA.** AGINDUA, 2024ko ekainaren 7koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita zibersegurtasun-arloko jarraitutasun-planak egitea autobabesarako euskal arauaren mende dauden zenbait jardueratarako. **2940e xedapena- 9 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2024/06/21

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 345/2024 Foru Agindua, ekainaren 10ekoa, 2024ko helbideratutako zerga sarreraren egutegia aldatzea ezartzen duena. **1925E xedapena- 1 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/06/18

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 270/2024 Foru Agindua, ekainaren 12koa, zeinaren bidez onesten baitira, 2023an hasitako zergaldietarako, 200, 220, 20G eta 22G ereduak, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga autolikidatzeko erabili beharrekoak, baita horiek aurkeztu eta diru-sarrera egiteko modua, epea eta tokia ere. **4414 xedapena- 269 or.**

2024/06/21

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 271/2024 Foru Agindua, ekainaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen baita 1330/2001 Foru Agindua, abenduaren 21ekoa, zorte, apustu eta zorizko jokoen gaineko tributuak aitortu eta likidatzeko 040, 042, 044 eta 046 ereduak onesten dituen. **4561 xedapena- 5 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 272/2024 Foru Agindua, ekainaren 14koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zergabilketan entitate laguntzaile direnei buruzkoa. **4566 xedapena- 2 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - BILBAO